



★ **700** Milloi
IZARTUtik Soraluzerako
Ekainaren 16 eta 17xan
Ezozin Jaixak

Soraluzeko aldizkaria

35. alea


2001eko maiatza



*Soraluzeko Musika Bandia berriz
pizteko asmotan*



**2.001-eko
Pernanda eta Pernando**



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 Soraluze

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide zozketia

**Hil honetan
Pettiren CDa**

Hil honetako irabazlia: Bixente Olaizola



Pil Pilean Kultur Elkarteko Bazkide egin nahi baduzu !

Helarazi zure datuak (Izen abizenak, helbidea, herria, herrialdea, telefonoa, helbide elektronikoa eta jaiotze data) Udaletxe azpian Pil Pileanek duen buzoian botata eta sartu urteko kuota (3.000 pezeta 16 urtetik gorakoendako eta 1.500 pezeta 16 urtetik beherako eta jubilatueendako) Euskadiko Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan Pil Pileanek izenean dauden kontu korronteetako baten (kontuagatik galdetu eta arazorik gabe sartuko dute dirua). Ez ahaztu dirua sartzeko duzunean zure izen abizenak ematea.

Eskerrrikasko euskalzale ! Ondo izan.

Gaztelupeko Hotsak eta Pil Pilean elkarlanean

Editoriala

Hauteskundiak pasatu dira. Zoritxarrez gauza gutxi aldatu dira. Urak nahastu xamar jarraitzen dabe eta ez dau emoten epe motzian urak bere bidera bihurtuko diranik.

Euskal Herrixa bake gosez dago, oso gose. Hainbeste hilketa, hainbeste preso, sufrimendu larregi bizirauten nahiko lan daukan herri txiki batendako. Ezin da hola jarraitu. Arazo honi irtenbide bat aurkitu bihar jako eta horretarako danon (herrittarron) eta danen (politikuen) borondatia bihar da. Sufritzen daren pertsona danegaittik, biharrezkoa da bizkor mobitzia. Ia ba bakian eta aske bizi izateko garaixak laster iristen diran. Horixe nahi dogu.

Gaiz aldatuta, herrixan bandia sortzeko dagan asmuak asko poztu gaittu. Ziur gare jente askok badaukala bandiareganako sentimentu ezkutu bat eta oso gustora hartuko dabela barri hau. Jaixak herrikoitzeko eta beste musika mota bat sentittuarazteko bidia emoten dau bandiak. Norberari be instrumentoren bat ikasten hasteko gogua emoten dotse holako barriak. Ilusiñua badago, oin musiko eta arduradunak biharko dira.

TELEGRRAPAK:

Plaentxian San Juanetan (bis) STOP. mutil zaharrak bentanetan (bis) STOP. neskak Eibarko kaletan. STOP. Ekainian Ezoziko jaixak STOP. Aurten, terraza barriakin, txirlo asko STOP. eta bolo gutxi. STOP. Martitzenian kartel ipintzen STOP. eguaztenian kartelak kentzen STOP. jakin nahi geunke zertan zabizten STOP. garbitzen edo zikintzen .STOP. Hauteskunde honek bedekatuak izan dira STOP. pasatu eta gero, danak bihurtu dira sinestun. STOP. 700 Milloi gure herri deprimituarendako. STOP. Eskerrikasko Jaurlaritzari, eskerrikasko. STOP. Mendi taldia “cheapeau” STOP. aldapan gora doiaz. STOP. Jai Batzordian jente gutxi dabil STOP. gero ez kejatu eh ! STOP. “Txorimalo Band” eta “Orquestra La Luna” izango dira jaixetako ekitaldirik potentienak. STOP. Bandia sortu bihar da. STOP. Lehenago izan dittuan izenak baino hobetsuagua topau biharko jako. STOP. “ Banda Municipal de Pamplona” esaterako. STOP. Kantu Afarixa, ikusgarri STOP. batez be amaierako laguntzia. STOP. Zuen esanetara STOP. euskalgintza. STOP. Pernanda (Maiaren) eta Pernandoren (Txakiren) artian rolletia dago. STOP. Ai, ai, ai...STOP. Hurrengo alian, sortu dan harremanaren eskusibia. STOP. Ondo izan eta hurrengo alerarte. STOP.

Kolaborazioa



Anai handia eta telezaborra

Gorka Salaberria

Gaur egunian telebista piztu ezkerogauza on gutxi aurkitu leizke,baina txarretan txarrena aukeratzekotan anai handiarena aukeratuko neuke.

12 pertsona aukeratu dittue parte hartze-ko,zein baino zein..., edo 12 pertsona horrek bakarrik agertu ziran parte hartzeko edo hor aukeraketa egitten dagan kalamidadia ez dakit nora begira egon dan.Etxe hortan dagan jendia oso inprebisiblia da,batzuk ezkondu egin ziran,beste guztiak egunero dake historixaren bat,baina badake zerbait danak antzera-koa,faltsutasuna.Dana dira negarrak pertsona bat etxetik urtetzeko aukeraketa egittian,baina etxia laga eta berihala hasten dira barriak. Argi dago ez dabela etxian gertatzen danaren erdixa be erakusten. Adibidez argi geratu zan pasa dan urtian zela saiatu ziran ezkututzen solidarixuak etxian sartu zirala.

Hontaz aparte jendiaren jarrera dago.Oso jende gutxi onartzen dau ikusten dabela edo noiz edo noiz ikusi dabela, (nik adibidez behin edo behin ikusi dot eta egixa esateko negargarria da) baina hori ez da posible,bestela ez zeban eukiko horrenbesteko audentziarik eta inork gutxi jakingo leuke zela doian kulebroia.

Honekin danakin esan nahi dotena da,gure errua dala horrenbeste telezabor egotia telebistan,guk ze jan berak hori ipini.Egin kasu eta anai haundixan orduan emendau kaja tontua,ipini irratixa edo irakurri zoeze(noizian behin pil-pilean bebai,hortarako pasatzen dittugu gure orduak ordenadorian parian) seguru askoz konstruktibuaia izango dala. P.D. Ixa ahaztu jata, eskerrikasko Pernando-ndako botua emon dostazueneri.



35. alea

Argitaratzailea:
Pil Pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Amaita Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

E-maila: Pilpilean@euskalnet.net

Inprimategia: Gertu Koop.

Publizitatea: Jon Oregi

Lege-gordailua: SS-537-2.000

(943751304 tel.)

C.I.F.-a: G20696563

Banaketa: Pil Pilean

Azala: Aitor Madrid

ekoizpena: 1.850 ale

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ALDIZKARI HONEK ERAKUNDE HAUEN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU EUSKARA BULTZATZEKO.



SORALUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Gutunak

(Poematxoa) Basajauntxo eta "Panplinas"

Bi pertsona mendixan aurkitzen dira eta...

- Kaixo lagun !
- Kaixo mutil harro !
- Zertan zabilta hemen ?
- Eta zu, "no te jode" ?
- Ezertan, ezertan.
- Ostia, zure "makutuak" oso aintzina-koa dirudi, ezta ?
- Aintzina-koa bai, eta zer ? Nere makutua "jipilandiakoa" da, larruz eta hariz egina dago.
- Zergaitik esan duzu hori "eta zer" ?
- Zu tontoa zarelako, "la ostia" eta jakin minerako makutu honek, nere makutuak parranda asko jasan izan dituela.
- Ah.... (eta laguna eta "panplinas" hor doaz mendi aurrean oso oso aurreratuta). Eta ni barre eta barre, ni bakarrik, hitzegiten beste bat naiz, ez nau inork irabazten mendian, kalean edo tabernetan, EZ DIT INORK IRABAZTEN !!

Gabriel Galan

Mesedez, begirune pixkat euskararentzat

Hau marka, hau! Euskaraz berba bat bakarrik ipini behar, herriaren

Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna 27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze. Laburtu behar izanez gero, *Pil-Pileanek* horretarako eskubidea izango du.

izena izan eta bera gaizki idatzita ipini.

Dagoeneko konturatuko zineten nora noan, alegia, "SORALUZE" izenaren gainean dihardudala. Izen hori, zoritxarrez, askotan ikusten da txarto idatzita, hots, "SORALUCE". Erdarazko berbetan ostera, ez da gertatzen horrelakorik, beti txukun eta egoki idatzita ageri dira, eta euskaraz berriz, askotan gaizki, gaitzerdi berba bakarrenekin balitz, hutsaren hurrengoa, baina berba askorekin ematen den gaitza da. Eta jada mamiarekin ez naiz sartuko, hori normalean erdaraz ematen da, eta kitto! horrela ez dago inolako arazorik. Holako jokabideak ikusita, garbi asko esan dezaket euskararen munduan folklokeria hutsa dugula nagusi. Nik bene-benetan, askotan ez dakit zertarako dagoen ere Euskal Akademia (Euskaltzaindia).

Euskaldunok honetaz jabetu behar dugu, hizkuntza baten bizi-iraupenerako erabilera dela garrantzitsua, erdarak betetzen dituen funtzio guztiak, gure kasuan, euskarak bete behar dituela, hori egin ezik, horrenak egin du, pikutara doa. Baina kantitatea bezain garrantzitsua ere bada kalitatea, hau da, txukun eta akats gabe, berba egin zein idatzi eta hemen bai dagoela anabasa itzela. Euskaraz egin behar dugunean, mesedez euskaraz egin eta euskal

kutsua emanaz egiten den horri, ez trakets, euskal gaiztoan edota edozein modutara.

Beraz, mundu guztiaren ahotan eta denen barregarri izan ez gaitzen egin ditzagun gauzak euskaraz, baina kalitatearekin, hots, zero akatsik gabe edo hutsik gabe, orduan bakarrik, euskerak eskertuko digu eta aurrera joko du, beste bidea antzua da eta.

Ander Epelde

Udalaren Oharra

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK 29. IKASTALDIA BURUTUKO DU UZTAILLEAN BIARRITZ ETA IRUÑEAN. HALABER, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK XX. UDA IKASTAROAK ANTOLATU DITU DONOSTIAN, UZTAILA ETA IRAILERAKO.

HORI DELA ETA UDAL HONEK ERABAKI DU **UDA IKASTARO** HORIETARA JOAN NAHI DUTEN HERRIKO IKASLE ETA LANGABETUEI MATRIKULA KOSTUAREN ERDIA ORDAINTEA. - EHUKO IKASTAROEI DAGOKIENEAN, EUSKARAZ DIREN-ETARAKO BAINO EZ DA DIRULAGUNTZARIK EMANGO.

DIRULAGUNTZAK JASO AHAL IZATEKO DERRIGORRA IZANGO DA MATRIKULA AGIRIA UDALETXEAN AURREZ AURKEZTEA.

INFORMAZIO ZEHATZ ETA ZABALAGOA NAHI IZAN EZKERO, UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAN GALDETU.

ALKATEA
Alberto Sudupe Oregi

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak



Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

ARANE Kiroldegia



Tel: 943752466

ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Zein da zure ligatzeko teknikia ?



Maria Jesus Arrizabalaga
56 urte
dendarixa eta etxeoandria

Gu erromerixetara eta mendira juaten giñan, baita "Dantzari"ra be (orduko diskotekia). Mutillak neskak dantzara ateratzen zittuzten, eta holan izaten zan gauzia. Normalian, lehenengo pausua mutilak emoten zeben, nahiz eta hor be danetik egon. Nere kasuan, betidanik ezagutzen giñan, eta "Dantzari"n izan zan dana.



Iruñe Varela Galarraga
11 urte
Ikaslia

Mutil bat gustatzen bajatzu, berangana juan eta esan egitten dotsazu. Berak be iguala kontestauz gero, ordu baterako gelditzen zarete. Gero, elkarri kartak bidaltzen dotsazue.



Ibon Muguruza Elorza
32 urte
Langilia

Bateron bat interesatzen bajatzu, ez da zain egon bihar berak lehenengo pausua emon arte, bestela besteren bat tartian sartzeko arriskua egoten da, eta azkenian galdu egitten dozu. Onena, zuzenian esatia da, bueltarik emon barik. Nik adibidez, beste mutil bat bere atetik zebilela notau neban eta segittuan zeeze egin bihar nebala konturatu nintzan. Goizeko ordubatean deitu notsan (iñuzente eguna zala uste dot gaiñera) eta zinera juatia nahi zeban galdetu notsan. Klaro, ordu horretan ez dago zinerik... azkenian zeeze hartzeko geldittu giñan eta gaur arte...




Igor Aldazabal
18 urte
Ikaslia

Mutil edo neska bat gustatzen bajatzu naturala izan bihar da, eta denboriakin lortzen da. Suertia baldin badaukazu, lehenengo pausua berak emoten dau eta bestela zuk emoten dozu.



Maria Pilar Zuri
70 urte
Jubilatua

Gure ligatzeko kontuak kalian, edo dantzan izaten ziran. Orduan ez zeguan sala de fiestasik oraingo moduan. Gaupasarik ez zan egitten, eta normalian gabeko hamabixetarako etxera juaten giñan, eta egun espezialetan, San Juan egunian... goizeko hiruak arte edo egoten giñan, baiña gehixago ez. Bergarara eta inguruko herrixetara juaten giñan eta gero autobusian edo trenian bueltau. Lehen, beti ,neskak, mutilak inguratzeke zain egoten ziran, orain behintzat ez da hola izaten ez?



Patxi Juan Gonzalez
23 urte
Langilia

Lehenengo, begirada sakon bat botatzen dotsat gustatzen jatan neskiari. Gero, bera nigan fijatu arte itxaroten dot eta hau pasa ostian, berangana hurbildu eta dantzan hasten naiz gerrixa mugimendu sexi batez mobittuz. Hola, neskia txora-txora eginda lagatzen dot.

*Ugaitz Catalan
Eguzkiñe Aldazabal*

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Herriko lanak

Poligonoko lanen balantzea

Hilabete honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen diputatua den Antxon Jaimereren bisita izan dugu Soraluze poligonoan egindako lanen gaineko balantzea egiteko. Gasteiz-Eibar norabidean egindako azelerazio bidearen lan hauek "Construcciones Adolfo Sobrino"-k gauzatuak izan ziren, 113 milioiko kostuz.

Lan hauek abantailak dakartzaten arren, GI-627rako eta poligono industrialerako sarrerak erraztea adibidez, alde txarrak ere badituzte, zeren eta Bergarako bidea hartzeak zailtasunak baitakartza. Arazoaz



ohartuta, Aldunditik bariantean abiadura gutxitzeko bandak jartzeko aukera kontutan hartzea erabaki dute.



Arane polikiroldegiko lanak ere badoaz aurrera. Udaletxeak Correos eta Kiroldegiaren artean dagoen partzela bat hartu du eta galdarak bertan jartzea erabaki du. Horrela, aspaldian dirauten ur-bero arazoak sahiestuko lirateke. Beraz, uraren instalazioa berrizatzen ari dira, hala ere, bien bitartean, polikiroldegia zabalik mantenduko da, pizina izan ezik, lehendik ere itxita aurkitzen ziren eta.

Aipatzekoa da, lehenengo maiatzaren 20an bertan izan zen ustekabeko sutea. Euskal-jaiia izanda, jende askoren arreta bereganatu zuen. Itxura denez, polikiroldegi inguruan (Iturburuko iturriaren alboan) zeuden koltxonetaren batzuk su hartu zuten.

Saciako lanen lehen fasea burututa



Orain gutxi amaitutzat eman da babes zibileko berrogeita hamar etxebizitza egiteko lehen fasea, Sacia ondoko tunela botatzea alegia. Hemendik aurrera, tunel hau (1925ekoa) ikusi nahi duen orok, liburuetara jo beharko du, ez baita jada haren arrastorik gelditzen lehenengo lekuan. Orain, uztailearen amaierarako Sacia lantegia botatzea aurreikusten da, gero etxebizitzak egiten hasteko.


Frontoiari bere txapela

Hasi dira jada frontoia estaltzeko lanak. Euren kostua hogeita hamar milioi baino gehiagokoa da. Lehen fasean burututako lan hauen ondoren, estalitako frontoian egon ahal izango dira. Bigarren fasean, Soraluze zine zaharra botatzea pentsatzen da, eta azkenik, haurren eraikuntza ere botatzea, dena, ingurua berrizatzeko asmoz.



“U” izenez ezaguna den tokian, parke bat egiteko lanak hasi ditu Udalak. “U”-a eta ondoko eraikina bota ostean, eskilara berriak egin, barandau berri jarri eta lekua parke moduan erabiltzeko eraberrituko dute. Correos eta Kiroldegiaren arteko partzelari dagokionez, beste parke bat egitea aurrikusita dago.

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

ELKOARTI



VIDEOCLUB

SORALUZE



Videomatic

Gabolatz, 3-behea
Telefonoa: 943 75 24 87

ETAren atentatuak gaitzesteko kontzentrazioak Plaza Barrixan



Joan den maiatzaren 7an eta 25ean "Gesto por la Paz" ek, bakearen aldeko koordinakundeak eta Udalak deitutako kontzentrazioak izan ziren Plaza Barrixan, ETAren azken hilketak salatzen.

Lehendabiziko biktima Aragoiko PPko presidentea, Manuel Giménez Abad, izan zen. Zaragozako "La Romareda" futbol

zelaira zihoala ezezagun batzuek tirokatu zuten. Bigarren hildakoa, "Diario Vasco" egunkariko finantza zuzendaria, Santiago Oleaga izan zen. Azken honen emaztea, Amaia Guridi soraluzetarra da. Hori dela eta Udalak ere atentatua gaitzetsi du.

Ruben Cortijo joan zitzaigun



Maiatzaren 21ean, ETBko helikoptero batek istripua izan zuen Markinako harrobi batean, behegeri hegan egitearren antza denez, eta 30 metrotik behera erori eta lurra jo ondoren, barnean zihoazen lau lagunetatik hiru hil egin ziren. Horien artean, Ruben Cortijo soraluzetarra zegoen, Eibarren bizi zena familiarekin, ETBko kamara. Esperientzia haundiko gizona zen kamararekin,

ETBn 16 bat urte zeramatzen lanean, eta bera zen mugimenduan irudiak egokiro grabatzeko gaitasuna zuen bakarrenetarikoa. Txirindularitzako, estropadetako eta rallyetako (besteak beste) irudiak grabatu ohi zituen helikopteroz, eta baita largometraia eta bestelako dokumentalak ere. Horrez gain "El Correo" egunkariko Eibarko delegaritzan lan egin zuen urte batzuek argazkilaria.

Rafael Barrenetxea Espainiako Makina eta Erraminta Erakundeko presidente berria

Orain dela bi aste Rafael Barrenetxea, azken 13 urtetan Soraluce S.Coop.eko gerentea, Makina eta Herraminta Erakundeko presidente izendatu zuten. Honez gain, "Ideko"-ko presidentea ere bada orain dela bi urtetik.

Rafael Barrenetxea, Soraluzen jaio arren, Eibarren bizi da azken 22

urtetan. Nahiz eta ekonomiko ikasketak egin, injineritza izan du betidanik gustukoen, eta ikasketak amaitu bezain pronto, Ingalaterran hasi zen lanean, Makina eta Herramintako hainbat enpresak osatutako holding batetan. Britainia Handitik itzuli zenean, irakas-kuntzan egin zuen lan, UNED-en hain zuzen ere,

urte batez. 1977an Danobat taldeko kide egin zen, non esportazio eta komertzio zuzendaritza karguak lortu zituen. 1987an Soraluce S.Coop-eko gerente izendatu zuten. Orain berriz, Makina Herraminta Erakundeko presidente da.

zorionak!!!

Arianne Unamuno
Eguzkine Aldazabal
Enara Agirre eta
Maria Azkona

Bake Epaitegiko idazkaritza Soraluzetik Debara

Soraluzeko plenoak, aho batez onartu zuen Soraluzeko Bake Epaitegiko idazkaritza Debakora pasatzea, ondorioz Deba, Mutriku, eta Mendarokoarekin batera jardungo luke. Aldaketok, justizia ministerioak proposatzen ditu Soraluze bezelako herri txikietako arazoei, modu bateratuan konponbidea eman ahal izateko.



Duela aste batzuk hasitako garbitzaileen greba ez da oraindik amaitu, protesta modura, pintura eta arrautzak bota dituzte bankuen ateetara.

Kontenedore berriak jarri dituzte eta batzuek lekuz aldatu

Dagoeneko herriko zenbait lekutan lehengoak baino haundiagoak diren kontenedoreak jarri dituzte eta zenbaitzuek tokiz aldatu ere bai. Plaza Zaharrekoak, adibidez, Erregetxera aldatu zituzte eta horrek zenbait herritarren haserrea sortarazi du, orain eskailerak igo behar baitituzte zakarrak bota ahal izateko.

Honekin batera, eta Deba Barrena eskualdeko Mankomunitateko Gobernuak maiatzaren 9an erabaki zuenez, Santa Ana kalean lurrazpiko kontenedore antzeko batzuk jarriko dira. Horretarako, zulo haundi bat egingo dute, 3.200 litroko bolumenarekin, eta agerian buzoi antzeko bat besterik ez da geldituko.

ETXEBARRI[®]
Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskaatzaileak
Ranuratzzaileak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona (943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

FER. S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfona: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Hileko argazki albuma

Sagardo Eguna - Euskal Jaixa - Kantu Afaria



1. Sagardo egunian poliki poliki baina jentia etorri zan eta Plaza Barrixa bete egin zan azkenian. 250 baso baino gehiago gastatu ziran. 2. Soralezeko dantza taldean aingerutxo batzuk dira danak. 3. 4. Plaza Zaharreko alardian bistarekin batzuk, dantzan bestiak baina danak gozatu zeben. 5. Kantu Afari arrakastatsua guztiz, 115 afaltiar baino gehiago eta kantua nagusi. 6. Maialen Larrañaga eta Gorka Salaberria dira 2.001. urteko Pernando eta pernanda.

ESOZIA
Erretegi
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

**SORALUEKOKO
GASTEZTERRIA**

Nerea Rodríguez

“...gabonetan laga egin neban gimnasia...”

Hamalau urteko lanak errekonozimendu berezixa bihar dabela eta jo dogu plazentziar honen atia, ez da makala izan gimnasiari eskeinittako ordu pilia eta Pil pileanek, gehixago merezi badau be, orritxo hau eskeintzia pentzau dau.

Nereak hiru urte zittuanian ekindako bideari laga dotsan arren bere gimnasiarekiko zaletasuna ez zan gabonetan bukatu. Elkarrizketa honetan kontauko doskuz emandako urratsak eta etorkizunerako planak, kirolaren inguruko kontuak eta bestelakuak.

-Zure erretratua

Ez dakit ba... alai eta burugogorra

-Kontaguzuz gimnasiakin lotutako kontuak

3-4 urte nittuala hasi nitzan plazentzian gimnasia taldean, egun baten eibarko entrenatzaileak hemengo kanpeonatu ikusi eta hara juatia proposau zostan. Gabonetan laga neban... 17 urtekin. Kirol gogorra da, asko entrenau bihar izaten giñuan, egunero hiru ordu eta aste-buruetan zazpi. Bestalde zaindu bihara be egoten zan baiña nik ez dot euki sekula arazorik horrekin, edozer gauza janda be ez nitzan loditzen. Txapelketetan eta hola, taldekidiok txokolatinak eta holako gauzak eukitzen giñuzen ezkutauta kuartuan eta entrenatzailea juaten zanian jan egitten giñuzen.

-Txapelketetan parte hartu izan dozula esan dozu ez ?

Bai, Valladoliden 3 txapelketetan; lehenengo kanporaketan 2. gelditu ginan, bigarrenian lehenengok eta finalian 2.ak. Malagan, Tenerifen, Alikanten, Zaragozan... leku askotan ibili izan gara eta garipekin garrantzitsuenak talde mailakuak izan dira.

-Kitto gimnasia ?

Momentuz laga egin dot, badakizu, ikasketak garrantzitsuak dira eta. Baina gimnasia egittia gustatzen jata eta entrenatzaile titulua etartzeko asmua datat... ikusiko dogu aurrerago.

-Egun baterako planik onena

Lagunekin egunpasa juatia erosketak



Nerea Rodríguez

egittera, gero gabian juergia eta lotara lagun baten etxera.

-Ekaina?

Azterketak baiña 22xan libre.

-Goguan izan bihar da.

Ez dala diruakin erosten.

-Zertan pasatzen dozu denbora asko?

Frontoian lagunekin berriketan.

-Errepikatu izan jatzun ametsen bat?

Txakur batek aginka egitten zostala.

-Euki dozu sekula zerbait eukitzeko ilusiñua?

Bai komuniorako tximiñua nahi

neban, baina bizikletia erregalau zosten.

-Gaur be ilusiño horrek jarraitzen dau?

Ez haura pasau zan.

-Zorionsu izateko klabia ?

Zaran bezelakua izatia.

-Mania bat ?

Hanketako bihatzak nazkia emoten doste.

-Kolare bat ?

Morea.

-Plazentziarrok ?

Oso sanuak gara.

HABANERAN

Hamalau urteko lana hamazazpi urterekin, badago zer hitzegina Nerea Rodrigezekin. harreman oso estua dauka gimnasiarekin, baina ez dago aztuta ikasi beharrekin. More koloreko neska modelo gorputzarekin, gehixena gozatzen dana bihotzeko lagunekin, jarraitu aurrera ere naturaltasun horrekin, zer erakutsi baduzu ta lan horri lasai ekin.

Etxebarri

Gururu

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

**Gosarixak eta pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



**Iñaki
Iñarra**

**Harategi eta
Urdategia**

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

EAJ-EA koalizioaren garaipen argia eta % 79ko partehartzea Soraluzen

EHek ez beste alderdi guztiek, 98an baino botu gehiago lortu dituzte hauteskunde hauetan.

Emaitzak

	Zentsoa	EAJ-EA	PP-UA	EH	PSE-EE	IU/EB	Be. bat	Zuriz	Ba. gabeak	Abst.
1998	3.750	1.102	443	717	423	83	12	19	16	%24.9
2001	3.621	1.260	544	512	430	112	10	10	13	%20.1

EAJ-EA Koalizioaren garaipen sendoa

Pasa den maiatzaren 13an Euskal Autonomi Erkidegoko parlamenturako kideak aukeratzeko egindako hauteskundeetan, erkidegoko hiru probintzietan moduan Soraluzen ere EAJ-EA koalizioa atera da garaile. Herritarren %80 inguruko partehartzearekin, 3.621 Soraluzetarretatik 1.260-k eman diote botua koalizioari. Emaitza honekin, EAJ-EA koalizioak 158 botutan hobetu du 1.998ko hauteskundeetan lortutako 1.102ko boto kopurua, igoera aipagarri batez sendotuz.

PPren igoera nabarmena

Gainontzeko alderdietan ere, erkidego osoan eman diren antzeko tendentziak izan dira nagusi. Esaterako, 544 boturekin bigarren indar politikoa bihurtzea lortu duen PPe, 101 botutan hobetu du 98an lortutako 443 botutako emaitza. Igoera nabarmena beraz PPe hauteskunde hauetan izan duena.

EHren galera handia

Bestelakoak izan dira EHren emaitzak, 98an lortutako 717 botuetatik 512ra jeitsiaz, 2. indarra izateari utzi eta 3. indar izatera pasatu da. 205 Botuko galerarekin, EH izan da hauteskunde hauetako alderdirik zigortuena.



Hauteskunde mahaietako jendea aspertu xamar zegoen arratsalderako.

PSE-EEren igoera apala

Apala izan bada ere, PSE-EEk ere igoera izan du. 98ko hauteskundeetan lortutako emaitza 7 botutan hobetuz, 430 Boturekin PSE-EEK Soraluzeko 4. indar politikoa izaten jarraitzen du.

IU-Ezker Batuaren igoera xumea

IU-Ezker Batua alderdiak ere 29 botu gehiago lortu ditu hauteskunde hauetan eta 5. indar politikoa izaten jarraitzen du.

Hauteskunde garrantzitsuak Soraluzetarrendako

Soraluzen izan den %79 inguruko partehartzeari begiratuta, argi dago Euskal Autonomi Erkidegoko gainontzeko herritarrek bezela, Soraluzetarrek ere garrantzi berezia eman dietela pasatu berri diren hauteskundeetara. Ikusgai gelditzen dira Erkidegoko Parlamenturako hauteskunde hauetan gertatu diren aldaketak, behinbehinekotzat hartu beharrekoak diren ala Udal hauteskundeetan antzeko emaitzaz errepikatuko diren.

Zortzi Familia Soraluzetarrek Txernobileko haurrak hartuko dituzte udan

Azken urte hauetan bezela aurten ere Chernobileko neska mutikoak etorriko dira Soraluzera, Uda pasatzera. Aurten 8 familiek eman dute izena ekimen honetan.

Txernobil Elkarteak bultzatutako ekimena

Ezbehar handiak gertatutako inguruetan bizi diren haurren egoeraz kezkatuta, Euskal Herriko Txernobil gobernuz kanpoko elkarteak Txernobil inguruetako haurrak ekartzeko ekimena jarri zuen martzan orain urte batzuk. Ekimen honen helburua, haurrei inguru osasuntsu baten egoteko aukera emanaz, heuren

herrialdean jasan ditzaketen eta askok jasaten dituzten gaixotasunei aurre egiteko defentsak indartzeko bidea ahalbideratzea da.

10 Hour baino gehiago Soraluzera

Soraluzen Txernobilgo haurrak hartzeko izena eman duten 8 familiei esker, 10 hour baino gehiagok izango dute aukera Soraluzera etorri eta heuren

osasuna pixka bat hobetu eta sendotzeko. Etorriko diren haurrak 7 eta 16 urte bitartekoak izango dira eta 2 hilabete justu egingo dituzte gure artean, ekainaren 23an etorri eta abuztuaren 23 joan arte. Eskerrikasko izena eman duten 8 familiei haur horiei heuren bizi kalitatea hobetu eta 2 hilabeteen heuren herriko egoera aldatzeko aukera ematearren.

700 Miloi IZARTUtik Soraluzerako

Zori oneko zoritxarrez, Soraluzek Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Elkarteko gunerik deprimitueneren garapen eta eraberritzerako sortutako Izartu programak, laguntzak jaso ahal izateko ezarritako 10 ezaugarrietatik 9 betetzen ditu.

Egoera honi aurre egiteko, Soraluzek 700 miloi jasoko ditu Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Horrela, Deba Barrean dirurik gehien jasoko duen udalerrria bihurtuko da Soraluze.

Inbertsioaren %25a Udalaren kontu

Udalerriri egokitu zaion 700 miloiko dirulaguntza honekin, Eusko Jaurlaritzak Soraluzerako izendatutako inbertsio osoaren %75^a finantziatuko du. Eusko Jaurlaritzak Soraluzeri izendatutako 932 miloiko diru inbertsioaren gainerako %25a Udalak jarri beharko du. Guztira, 373 miloiko diru kopuruari aurre egin beharko dio Udalak datozen urteetan. Martxoan Eusko Jaurlaritzara aurkeztutako 2.148 miloiko hasierako aurrekontua nabarmenki murriztu den arren, jasotako dirulaguntza mamitsuak, aurrikusitako beharrian asko asetzeko aukera emango dio Udalari.

Etxebizitza, errepide, eraberritze eta lan arloko ekimenak

Sei Ekimen garrantzitsutan banatuko da Jaurlaritzak izendatutako 932 miloiko inbertsioa. Lehenik Erregetxerako sarbidea egiteko lehen eta bigarren fasea burutuko dira, 252 miloiko kostuarekin eta honen ostean uztailean Sacia bota eta Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikiko dira. Aurrera eramango den beste azpiegitura lan bat, Deba ibaiaren gainetik zubi bat eraikiz, 354 miloiko kostuarekin Oletatik Santa Anarako



Estazioko tunela egin ostean, Sacia botatzeko lanak hasiko dira.

“Izartu programan barneratzea, Soraluze eskualdeko gainontzeko herrien maila sozio-ekonomiko berean kokatzera eramango duen autopista izango da”

sarbidea hobetu asmoz egingo dena izango da. Ruina egoeran dauden eraikinei begira, 45 miloi bideratuko dira, hauek bota eta zenbait lekutan ibai bazterrak egokitzeko. Eremu publikoen urbanizaziorako 145 miloiko diru kopurua aurrikusi da eta beste 100 miloi herriaren itxuraren eraberritze eta edertze lanerako. Azkenik, 15 miloiko diru poltsa gorde da lan arlorako, emakumeen langabezi tasa murriztu nahian, emakumezkoendako telelan zentru bat sortzeko asmoarekin.

Progama honen Gestio Integratua burutzeko bi lan talde sortuko dira, tartean Udaleko alderdi politikoko guztietako ordezkariak partaide izango

dituelarik.

Alkateren balorazio positiboa

Alberto Sudupe alkateak balorazio positiboa egiten du jasotako dirulaguntzaren kopuruari dagokionez. Alkatearen eritziz, “berri ezinobea da gure herriarendako. Sakrifizio handia egitetik libratuko ez gaituen arren, inoiz baino eskuragarriago dugu, herria bizi ditugun garaiei dagozkien azpiegituz hornitzeko aukera”. Are gehiago, “Izartu programan barneratzea, Soraluze eskualdeko gainontzeko herrien maila sozio-ekonomiko berean kokatzera eramango duen autopista izango da” Suduperen ustez.

Egoitz Unamuno



Kiru Muntaiak

**Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Kontulan Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfnoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Pilota

Herriko pilotariak bikain

Deba Arroko eta Matienako txapelketa

Deba Arroa Txapelketa finalak apirilaren 29an jokatu ziren. Kadete mailan Zuhaitz Rodriguez eta Erlei Txurrukak 22 eta 21-eko emaitza estuaz galdu zuten Arrasateko taldearen aurka. Gazte mailan txapela jaztea lortu zuten Iker Azagirre eta Iñaki Jauregik 22 eta 16-ko emaitzarekin Eibar-tarrak mendean hartuz.

Txapelketa hontan sariak ez ziren hor amaitu, Erlei eta Iñakik bakoitzak bere mailan pilotaririk onenaren saria lortu bait zuten.

Matienako txapelketan Aritz Laskurain izan zen txapelduna, Ubera II-rekin batera egun Euskadiko txapeldunordeak diren Mikel eta Casado 22 eta 16-ko emaitzaz mendean hartuz ordu eta hogeita minutu luzeko partidu eder batean.

Bergara Hiria txapelketa

Txapelketa hau promesa eta afizionatu mailan jokatzen den garrantzitsuenetarikoa da, eta bertan izan dira Iñaki Jauregi eta Aritz Laskurain.

Aritzek iadanik jokatu du bere partidua. Ondo jokatu zuen arren, Ubera II lagun zuela, ez zuen garai-pena lortzerik izan Mugu-ruza eta Peñagarikanoren aurka.

Promesa mailan Iñakik maiatzaren 29-an arratsaldeko 19:30etan jokatu du lehen partidua. Izagirrerekin batera Bengoetxea eta Iraeta Leitzatarraren



Euskal Selektzioaren partaideak

aurka jokatu du. Bengoetxea gazte mailako Euskadiko txapeldun suertatu berria da, eta oraindik oso gaztea den arren dagoeneko Asegarce enpresarekin hitz emana dago. Beraz ez du nolana hiko arerioa.

Zaramaga eta Urretxuko txapelketak

Zaramagan Erlei Txurruka eta Iñaki Jauregi finalera iritsi dira, bertan Azagirre eta Iruretaren aurka arituko dira txapelketa nork lortuko borrokan. Urretxuko txapelketa final zortzirenetan aurkitzen da. Jauregi gazte mailan banaka eta Onar Muguruza eta Arrieta nagusi mailan binaka finalerako bidean dira.

Herri arteko txapelketa

Joan den urtean lorturiko 4. Postuari ezker, aurtan Soraluze final laurdenetan hasiko da lehian. Joaneke partidua ekainaren 10eko astebukaeran jokatu, eta etorrikoa hurrengo astebukaeran. Aurkaria Segura, Zarautz eta

Zestoa herrien artean ga-raile suertatzen dena izango da.

Euskadiko Selektzioa

Aritz Laskurain Euskadiko Selektzioko partaidea da otsaila ezker. Aste-oro aritu da entrenatzen selektzioko beste partaideekin, eta laister lehen aldiz Euskadiko koloreak defendatzeko aukera izango du.

Ekainaren 2an, Gasteizko Mendizorrotza polikiroldegian Euskadi eta Amerikako pilota selektzioak aurrez aurre arituko dira pilotaren hainbat jokamolde ezberdinetan. Aritz ezker paretan banaka jokatzeak aukeratua izan da, Zornotzako Andoni Eguzkizarekin batera. Partidua hautatzaileak egoki deritzonak jokatu du. Aurkaria Asegarcerekin hitz emana dagoen Fernando Medina Mexikarra izango da, Espainia eta Frantziako selektzioak mendean hartuz gaur egungo munduko txapelduna.

Kirola euskaraz

Aurtan ere sekulako arrakasta izan ondoren iritsi zaio amaiera Kirola Euskaraz programari.

Mutiko gazteek kirol ezberdinak probatu ahal izan dituzte urte guztian zehar eta dirudienez Soraluzen kirolerako izugarriko kantera daukagu, mutil neska guztiak beraien txapelketa guztietan punta puntan ibili dira eta.

Pelotan Deba Arroko Txapelketa irabazi zuten eta futboleko Eibarko Txapelketa. Azken hauek denboraldia nahiko triste amaitu zuten Lasarteko futbol taldearen aurka final laurdenetan galdu ondoren.

Partidua gogorra izan zen eta hutsean amaitu ondoren Lasartek penaltietan irabazi zuen, mutikoak eta entrenatzaileak nahiko triste geratu zirelarik baina gero hotzean konturatu ziren egin zutena ez zela makala.

Futbola

Adio 2.000 - 2.001 denboraldiari

Joan den alean esan genuen bezala oso gutxi falta zen denboraldia amaitzeko eta jua zen astebukaeran azken partiduak ikusi ahal izan genituen Ezoziko futbol zelaian.

Denboraldi honetan danetik izan dugu, gauza onak eta txarrak. Gertatutako gauza txarrak inori ez zaizkionez gustatzen gogoratzea ez ditugu ale hontan berriz aterako, beraz gera gaitezen berri pozgarriekin: Gazteen denboraldi ona, erregionalen kategoria mantentzea eta nola ez jubenilen maila igoera.

Azken hauek izugarriko denboraldia burutu dute eta hauekin batera beraien entrenatzaileak, bere lehen urtean jende askok lortu ez duena lortu bait du: talde bat mailaz igozteak.

Lakuesta
Optika 
Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak
Argazkiak errebelatzen ditugu
Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA
Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118
SORALUZE

PARIS-HOLANDA-BELGIKA ikasbidaia

Hainbeste denbora pasatu ondoren, azkenean iritsi zen eguna. 18:45ak ziren eta denok irrikitan geunden autobusa noiz iritsiko. Guraso guztiak, edo behintzat gehienak, han zeuden eta denak gu baino urduriago zeuden gainera. Autobusa heldu bezain azkar, denok igo eta segituan joan ginen Parisa bidean. Bidaia hasi bezain pronto, bi monitoreek beraien burua aurkeztu zuten: Lander eta Kepa...

Gau guztia pasa genuen bidaietan, eta esan beharra dago oso astuna egin zitzaigula. Goizeko zortziak inguru izango ziren Pariserira iritsi ginenerako. Denbora libre utzi zigutenez, gutako gehienok, zuzenean Torre Eiffel-a ikustera joan ginen. Ikusgarria zen, gerturatu ahala handiagoa zen, eta jada goian geundenean Paris guztia ikusi zitekeen bertatik. Bazkaltzeko orduraino egon ginen dorrearen inguruan, beste hainbat eraikuntza ikusiz. Gero hotelera joan ginen, bidean hiru ordu eman ondoren. Izan ere, txoferra galdu egin zen eta Paris inguruan ibili ginen bueltak ematen. Gainera, hotelaren inguruan ez zegoen metro ahorrak eta arratsalde guztia igaro behar izan genuen bertan edo inguruetan! Hau agentziaren hutsa izan zen. Baina halere barre pixka bat egin genuen eta ederki ibili ginen gaueko ordu txikiak arte.

Hurrengo goizean seietan jaiki behar izan ginen Euro Disney-ra joateko. Bertan egun osoa pasa genuen. Atrakzio guztietan ibili ginen: Space Mountain, Indiana Jones, pirates..., Hitchcoten etxe beldurgarrian egon ginen, Disneyko pertsonaiak ere ikusi genituen eta Wall Stret-en ibili ginen erosketetan. Ondoren Planet Hollywood-era joan ginen gaueko hamabiak arte gutxi gora-behera.

Gau guztia pasatu genuen Parisetik Holandarako bidean. Hurrengo goizean, goizegi irtsi



Ikasbidaiko ikasliak bungalowaren aurrrian.

ginenez, delfinario batera joan ginen bazkalordua arte. Gero, Langoed't Loo izeneko konplejo turistiko batera joan ginen, bertan baikeneuzkan bungalowak. Leku hau oso ondo dago, hainbat gauza baititu bertan: igerilekua, bolatokia, errekreatioak, supermerkatua eta laku txiki bat erdian. Arratsalde guztia bertan eman genuen, eta baita gaua ere.

Hurrengo goizean, La Haya izeneko hirira joan ginen, eta han buelta bat eman ondoren, Holanda miniaturan ikustera joan ginen. Berriz bungalowetara bueltatu ginenerako, jadanik gaua zen eta bakoitzak ahal zuena afaldu ondoren, denok etxe batean bildu ginen, aurrerago ere gauero egingo genuen bezala.

Zortzietan jaiki ginen hurrengo egunean (esan beharra dago, asko ez dugula lo egin!) Amsterdamera joateko. Hiri hau oso bitxia da: trenak kaletik zehar, kofe shop-ak leku guztietan, auzo gorria, jende oso arraroa izkina guztietan.... Baina hala ere, oso gustatu zitzaigun. Paris polita da, baina Amsterdamek zerbait berezia dauka. Egun guztia bertan igaro genuen, bakoitzak nahi zuena eginez.

Hurrengo egunean ere Amsterdamera joan ginen, baina ez genuen ezer berezirik egin: zerbait erosi, bazkaldu eta gelditzen zitzaizkigun hainbat gauza ikusi. Gauean, ordu-rako denok generaman nekearen ondorioz, ez genuen parranda handirik egin eta goiz joan ginen ohera.

Azken eguna zen jada, eta bungalowak utzi behar izan genituen. Pena pixka bat eman zigun, baina oraindik bidaia bukatu ez zenez... Hainbat auto ilada jasan ondoren azkenik, iritsi ginen Brujas-era. Herri polita da. Gurdiak daude zaldiekin, nahi duenak buelta bat emateko, eta txokolate pila bat dago toki guztietan. Bi ordu bakarrik iragan genituen bertan. Gero autobusean ibili eta itzulerako bidaia egin genuen.

Soraluzeko semaforora iristean sentitu genuen pena izugarria izan zen. Bidaia jada bukatu zen.

Laburbilduz: oso ondo pasa genuen eta jendea ondo portatu zen gurekin, batez ere Holandan. Berriz bueltatuko ginatke edozein momentutan, bi aldiz pentsatu gabe, baina zer egingo zaio, gure ikas bidaia joan da.

Aintzane Esposito

Euskarari Buruzko Emanaldia

1965. urtean Iruñean jaiotako Asisko izenekomutil gazte batek, EUSKAL LOKUZIOERI buruz heman zuen hitzaldi bat apirilaren 6an.

Asiskok 1985-87 urteen artean Iruñako Udal Lehiaketan, hiru sari irabazi zituen, eta aipatutako azken urtean, gidoi hoberena ere irabazi zuen. Honek komikiak marrazten ditu eta lanak, "Nafarroa Gaur", "Argia", "Gara", eta "Ipurbeltzen" argitaratuak izaten dira. Hauetaz aparte, liburu edo komiki gehiago idatzi ditu, "Napardheid fanzinea" "Erraondo"... aipagarrienak. "I'm Pelot" eta "Mantxut"albumak ere idatzi ditu. Pertsona oso langilea denez, kamisetak, liburuak ilustratu eta pegatak ere egiten ditu.

MANTXUT:

Asisko Urmenetaren irudi biziek ilustratzen duten bilduma praktikoa honetan, lokuzioak lau hizkuntzatan agertzen dira. Liburuaren sarreran egileek zera diote lan honen helburu eta erabilpenari buruz:

Kate motzean

IÑIGO ZUZENDARIA

Hona hemen gure **H**ikastetxeko zuzendariari egindako galdetegia:

Gu- Zer nahiago duzu telebista ikustea ala musika entzutea?

Zuzen.- Bat aukeratzekotan musika nahiago.

G- Zure lagun mina izateko, zer duzu gogokoago andregaiia ala mutil lagunak?

Z- Andregaiia, bikotekidea.

G- Zein da zure Djrik gogokoena?

Z- Mundu hori ez dut ondo ezagutzen. Ikastetxeko ASIDJ da ezagutzen dudana bakarrenetako bat.

G- Zein da zure muskarik gogokoena?

Z- Antton Valverde, Mikel Laboa, Enya.

G- Zer nahiago duzu

hondartza ala mendia?

Z- Mendia baina hilabeteetan behin edo, itsasoa ere gustatzen zait.

G- Zein da zure autorik gogokoena?

Z- Ez diot markari inongo garrantzirik ematen; hala ere egunen batean furgoneta bat izatea gustatuko litzaidake.

G- Zer nahiago duzu, kalean ala baserri batean bizi?

Z- Baserriren batean bizitzea gustatuko litzaidake.

G- Zure ustez zein da onena, King Africa ala Paulina Rubio?

Z- Barkatu baina ez ditut ezagutzen.

G- Zer nahiago duzu autoa ala motorra?

Z- Ba...bizikletaz ibiltzea.

G- Zer gustatzen zai-

Hizkuntza bati bere metaforak kentzen badizkiogu, hizkuntza horrek bizia galduko du. Hizkuntza bateko hiztunak beren hizkuntza horrek ez du ez gatzik ez piperrik.

Asiskok Mantxut bere hitzaldia oinarritzeko erabili zuen eta liburuan euskarazko lokuzio, esklamazio eta esamoldeak ageri dira, bilduma hau ez da betiko euskal lokuzioei buruzko liburua, berri batzuk ere asmatu dituzte, gaur egungo bizimoduarekin egoki geratu direnak.

Berak dioenez, liburu honen helburua ez da irakurleak bertan agertzen diren lokuzio guztiak buruz




ikastea, hauetatik bakar batzuk gustatu eta zure bizimodu normalean erabiltzea baizik.

Esan beharra dago, D.B.H-ko ikasle gehienek, denek ez esatearren, zerbait ikasi genuela eta berarekin oso gustora egon ginela.

Besterik gabe agurtzen gara Soraluzeko D.B.H institutoko euskara batzordeko partaideak

Nerea Mendia
eta Ander Eizburu

Ihesari buruzko hitzaldia



Otsailaren 27an, Arrasateko Ihes Berri taldeko partaideak institutura hurbildu ziren ikasleoi ihesari buruzko hitzaldi bat ematera. Bertan, ihesaz kutxatzeko zeuden era guztiak azaldu zizkiguten eta baita hauek sahiesteko hartu beharreko neurriak. Beraien esperientziak ere kontatu zizkiguten, izan ere etorri ziren hiru partaideak seropositiboak ziren. Gero, noizbaiten guk gaixotasuna hartuz gero egin beharko genukeena esan ziguten eta dudarik izanez gero, beraien laguntza eskeini ziguten edozertarako. Azkenean, gure galderak erantzun zituzten eta beraien telefonoa eman ziguten.

Hasier Ugarte eta Aintzane Esposito

Beldurrezko istorioa



Egilea:
Maitane Iñurrieta

2000ko Abenduak, 3an.


Asteburua heldu da! Pentsatu nuen nire barnerako. Erizainak aldatzen ginen aldagelara joan eta hemen Mary zegoen. Honek ere gaurko lana bukatu zuen eta kalera joateko aldatzen ari zen. Oso jatorra zen baina gutxitan hitz egin nuen berarekin :

- Zer moduz eguna, Mary ?
- Betiko bezala. Zer esango dizut ba ? Zer moduz zu ? Ba al zabiz toki hontara ohitzen ?
- Bai, oso ondo konpontzen naiz hemen, New York-en baino askoz hobeto.
- Pozten naiz ba. Beno, ni banoa, zerbait nahi baduzu beldurrik gabe eskatu, ados ? Agur eta astelehenera arte.
- Bai, eskerrik asko, agur...

Soineko txuria kendu eta praka eta alkandora jantzi nituen. Eritetxeko pasabidetik pasatu eta han zeuden erizain eta sendagile guztiak agurtu ondoren San Francisco Centre Hospital-etik irten nintzen. Autobus geltokiruntz joan nintzen, izugarrizko hotza zegoen eta euria ari zuen.

Beti egiten nuen bide berdina, eritetxetik 21:15etan irten eta kale izkinara joaten nintzen autobus geltokira. Autobusa 5 edo 10 minutu beranduago iristen zen beti beraz, 5 minutu nituen bertara iristeko.

Denboraldiritxo bat itxaron eta segituan etorri zen autobusa. Bertara sartu eta bidaiak kostatzen zuena ordaindu ondoren martxan jarri zen. Ostirala izateko jende gutxi zegoen, normalean aste bukaeran jende asko ibiltzen baitzen. Jendea geltokiz geltoki jeisten ari zen eta nirea azkenazenez gutxi batzuk geratu ginen.



Azkenean heldu zen nire jeisteko gunea. Azken kalea zeharkatu eta gero, errepideko pasabideruntz joan nintzen, hiri hartan berria nintzenez, kanpoaldean zegoen etxe txiki batean bizi nintzen bakarrik, horregatik, bide luzea nuen etxe arte.

Errepideko pasabideko eskailera jeitsi eta toki ilun hartan sartzeak beti ematen zidan beldurra, oso argi gutxi zegoen eta ez zen inor egoten. Aurrera jarraitu nuen izkinetan zegoen zikinkeria guztiari begira. Isiltasun handi hartan lehen aldiz urratsak entzun nituen nire atzean, eta pixkat urduri aurrera jarraitu

nuen, pausoa bizkortuz. Norbaitek nire izena xuxurlatu zuen atzera begiratu eta nigandik gertu gizon bat zegoen, hau ere azkar ibiltzen. Berriro ere nire izena xuxurlatu zuen norbaitek, pasabidean, gizona eta ni kenduta ez zegoen inor, baina beste ahots bat zela zirudien urrunagotik zetorren bat. Inoiz baino luzeagoa egiten zitzaidan pasabidea eta gizona oso gertu zegoenez korrika hasi nintzen taupaden abiadura bikoizten zitzaidan heinean. Oihuka hasi nintzen baina alferrik, gizonak berdin jarraitzen zuen eta inork ez zidan entzuten. Izerditan nengoen eta aurrera segitu nuen gainean neraman boltsa lurrera botaz. Ez al da inor azaldu behar? Zein da gizon hori? Azkenik gauaren iluntasuna ikusi nuen metro batzutara. Gelditzen zitzaizkidan indar apurrekin korrika azkarrago egin eta eskailetara heltzeko jauzia egitera nihoanean, norbaitek alkandoratik tira egin zidan... Nor zen ikusteko buelta ematean, Smith sendagilea zela konturatu nintzen. Ezin da izan ! Eritetxeko autopsi-egilea da ! Beti izan nion errespetua, bere aurpegian zerbait arraroa zegoela iruditzen zitzaidalako

baina, inoiz ez nuen pentsatuko horrelako gauzarik egin ahal zezakeenik. Beti bezain altu eta itsusi, aurpegira begiratu eta bere ahotik " nirea zara" hitzak irten ziren baina, ostiko bat emanez aldendu nintzen. Korrika nihoala ez nekien norantz joan eta errepidea zeharkatzea erabaki nuen. Oraindik bere arnasa entzuten nuen eta kotxerik pasatzen zen begiratu gabe zeharkatzen hasi eta... garraioa gelditzen saiatu zen baina ...

Begiak ireki eta nire ohean nagoela konturatu naiz, eskerrak! Dena amets-gaizto bat izan da

Euskara Hobetzen

Txistiak

Historiako andereñuak galdetzen dotsa Jaimitori:
 - Zer gertatu zan 1812xan ?
 - Zela jakingo dot ba nik, artian jaio be ez nintzan egin eta !

Esamoldeak:

KONTUAK ATERA

Pentsatu, kalkulatu aditzen sinonimoa da.

Adibidea:
Inork ez du aintzat hartu beraz, kontuak atera.

Kontuak atera ezertan hasi baino lehen, ondorioak ekar ditzake eta.

BIZIMODUA ATERA

Bizitzeko adina irabazi esan nahi du esapide honek.

Adibidea:
Praiskok bizimodua burnioletan ateratzen zuen.

Gure kontura ez duzu bizimodurik aterako.

AFALONDOKO KONTUAK

Gezurrezko ipuinak ez

direla adierazteko.

Adibidea:
Ez dira horiek guztiak afalondoko kontuak.

UR HANDIKO ARRAINA IZAN

Pertsona garrantzitsuei deitzen zaie horrela.

Adibidea:
Ur handiko arrainak dira horiek.

Ehiztari batek esaten dotsa lagunari:
 - Poliki-poliki lehoiarengana hurbildu, eta bapatian... prru-uutttt

- E? Esan nahiko dozu grrrrrrr !
 - Ez ba, atzetik hurbildu nintzation eta.

Herrixa tren-geltokittik zenbait kilometrotara zeguan.

Bidaiari zuhur batek galdetu zotxan taxistiar:

- Zenbat kobratzen dozu hemendik herrira ?
 - Bostehun pezeta, jauna.
 - Eta maletagaittik ?
 - Maletagaittik bapez, jauna.
 - A, ederki; orduan eramazu maleta, ni oinez juango naiz eta.

KOMIKIA



Argoitz Ariznabarreta

Soraluzeko Istitutuak eta Pil Pileanek elkarlanian argitaratutako aldizkarixa

Homer Simpsonekin berriketari

Ikasbidaian, Sprigfieldera juan ginan, eta behin han egonda, ezin genduan handik familixa xeble haur bisittau barik etorri "Simpson" familixia, bereziki Homer J. Simpson.

Izena: Homer J. Smpson.

Pisua: 120 kg.

Alturia: 1,70 m.

Bizilekua: Springfield.

-Zure janari gogokoenak ?

-Medikuak prohibidutakua, donutsak, hanburgesak eta halako beste mordo bat.

-Herrixa ala hirixa nahixao ?

-Bizitzeko herrixa baina oporretarako hirixa.

-Mendixa hala plaiyia ?

-Mendi gainera kotxian igo baldin baleike mendixa, bestela plaiyia baina bixetan egon leike etzanda eta orduan berdin jata.

-Zela hasi zinan telebisiñuan lanian ?

-Neri lagun batek aurkeztu zostan zine munduan ezaguna eta garrantzitsua dan pertsona bat.

Honek ondo ezagutu edo zelakua nintzan konturatu zanian, etxian "gran hermano" moduan, kamara batzuk jarri eta transmititzen hasi ginan, hala gabiz gabiz hamar urte



honetan.

-Holakuak zarete benetan ?

-Bai, gu garan modukuak agertzen gara, nahiz eta hasieran lotsatuta sentidu, orain ahaztuta daukaguz kamarak.

Euskara danona



Ugaraxo



2.001eko Maiatza 0. alea
Plaentxi H. I. eta Pilean aldizkaria elkarlanean



*Eskolaurrekuak ongi
etorrixa egin dotse
Udaberrixari*

Pil Pilean aldizkarixarekin hasitako elkarlari esker, Soraluzeko Institutuak eta Plaentxi Herri Ikastetxiak ikasleri euren eritzi eta kontuak herrixari erakusteko aukera emongo dotsen JAURTI ETA UGARAXO gehigarriak sortu dittugu. Pil Pileanekin batera banatuko dira eta gero eta hobiak egitten saiatuko gara.



Sastarraineko Baserri-eskolan

Apirilaren hasieran hirugarren mailako ikasliak pare bat egun pasa zituzten Baserri-Eskola honetan

Apirilak 2 eta 3an 3. Mailako ikasleak zestoan dagoen Sastarrain Baserri-Eskolara joan ginen.

Bederatziretan Sorazuzetik irten eta 10etan Zestoan geunden, Gurutze plazan, furgoneta baten zain. Han boltsak eta motxilak sartu genituen eta gu oinez joan ginen Sastarrainera.

Iritsi ginenean logeletan motxilak utzi eta bi talde osatu genituen LU eta PAKO.

Gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko bi arduradun zeuden janaria banatzeko, platerak jaso eta erratza pasatzen zutenak.

Bi egun hauetan ekintza desberdinak egin genituen inguruneke gaiekin lotuta.

Lehendabiziko egunean "altxorraren bila" jokoa egin genuen. Altxorra topatzeko mapa bat osatu behar genuen eta mapa osatzeko, froga desberdinak gainditu behar genituen.

Ondoren ikuilura joan



Hirugarren mailakoak primeran pasa zituzten Sastarrainen bi egunak

ginen. Hemen zaldian ibili, ikuilua garbitu eta ardien, behien, zaldien.... janaria nola prestatzen zuten azaldu ziguten. Ikuiluan animalia mota asko zeuden: Basurdeak, txerriak, zaldiak, behiak, ardiak, arkumeak, ahuntza, akerra, poni bat, artzain txakurra... e.a.

Ikuilua garbitzeko tresna desberdinak erabili genituen: karretilla, pala, rastriloa e.a.

Gauetz baserri ingurutik pasio bat eman genuen izarrak ikusteko. Ondoren diskotekan denok dantzatu genuen eta ohera joan ginen. Ohean barre eta

hitzegin ondoren lo hartu genuen.

Hurrengo egunean oilotegia ikusi genuen eta animaliei janaria eman genien. Animalia asko zeuden: Oiloak, oilarrak, faisanak, pauma, zisneak, usoak e.a.

"Ekain"-eko kobazuloa itxita dagoenez, kanpotik bakarrik ikusi genuen. Barruan dauden marrazkiak diapositiba bidez ikusi genituen: Zaldiak, bison-teak, hartza eta arraina. Historia politak kontatu zizkiguten. Ondoren kobazuloako irudiak gogoratuz, marrazki bana egin genuen.

Liburu Eguna

Apirilak 23an “*Liburuaren eguna*” izan zenez, Plaentxi H.I.-koek ekintza bereziak antolatu genituen. Guk egindako pasarteen bidez, 3 lurralde bisitatzeko aukera izan genuen:



Laborategi gelan antolatu zen eta bertan hainbat zeuden erakusketa ikusgai (inguruneko liburuak, intsektu, harri, mial eta fosilen bildumak.)

Liburutegian antolatu zen eta han, ipuin bat entzun genuen zenbait unetan hurrek ere parte hartzen zutelarik.



Aretoan, hiru hizkuntzetan (euskeraz, gazteleraz eta ingelesez) desordenatuta zeuden ipuinak behar bezela osatu behar genituen.



Ehh!!! Baina ez pentsa denok batera ibili ginenik!!! Hemen gauzak fundamentuz egiten ditugu. Gela bakoitza nora joan behar zen jakiteko ordutegi bat zegoen.

Hau dena esanda agurtzen zaituztegu.

6. maila A

Donostian barrena!!

Apirilaren 27an goizeko gretan autobusa hartu eta Donostira joan ginen, han Pasealeku Berrian hamarretakoa jan genuen. Gero Aquariumera joan ginen arrainak, marrazoak eta kokodriloak ikustera, sarreran balearen eskeleto erraldoia ere bazegoen eta bere hegadak aintzina-aintzinean eskuak zirela esan ziguten. Pelikula bat ere ikusi genuen.



Ondoren Alderdi Ederren bazkaldu genuen eta bertan dagoen zaldikomaldikoan ibili ginen.



Geroago autobusa hartu eta Miramonera joan ginen, lehenengo lorategian dauden maketak ikusi genituen. Jarraian Txikiklik-en sartu eta bapatean zientzialariak bihurtu ginen, eta gauzak ikusi, behatu, ikutu eta ondo pentsatu ondoren ondorioak atera behar genituen. Gero dinosaurio berdurgarriak ikustera joan ginen. Bukatzeko ispiluen laberintoan ere ibili ginen.

Azkenik autobusa hartu eta Sorailuzera etorri ginen. Zubian jende mordo zegoen gure zai.

Ondo baino hobeto pasatu genuen!!

2. maila



Mendizaletasuna

Diapositiba emanaldixak eta finalista eguna aurtengo Mendi Astiaren barruan

Azken urte honetan egin daben moduan, Soralezeko Mendi Taldiak Mendi Astia antolatu dau. Aurten 4 diapositiba emanaldi izango dira eta eskalada, mendigoietako esperientzia eta Pirineo-etako ibilaldiei buruzkoak izango dira. Emanaldi danak, Baltegiatoko Gela



Urdinian eskeiniko dira, arratsaldeko 20:00etan hasitta. Diaporamez gain, Finalista Eguna be ospatuko da Ezozin eta bertan sarituko dituzte urtian zihar mendixan ibili diran gaztetxuak. Badkizue denok, zita bat dugu ekainaren bigarren astean mendiarekin eta mendi taldearekin. Animo eta agertu!

Mendi Astia

Diapositiba emanaldixak



Ekainaren 11,
astelehena

Bakarkako eskaladak
YOSEMITE
(CALIFORNIA)
eta
YOSUA TREE
(TEXAS).
Jesus Galvez

Ekainaren 12,
martitzena

AMIN BRAK
(NANKOR BIDEA).
Adolfo Madinabeitia

Diapositiba emanaldixak Baltegiatoko Gela
Urdinian eskeiniko dira, 20:00etan.

Ekainaren 13,
eguztena

GASEMBRUM 4
(SAIAKERA) eta
SISHA PAGMA.
Kike De Pablo.
Adolfo Madinabeitia

Ekainaren 14,
eguna

PIREINEISMO
EXTREMO.
Carlos Vieira eta
Mikel Saez.

Finalista
Eguna

Ekainaren 17,
dometia

Finalista
Eguna 2.001

8:30etan
TXAPLIDU
JAURTIKETIA



9:00etan
ATXOLINERA
IRTEERIA

12:30etan
EZOZIRA

Antolatzailia:
Soralezeko Mendi
Taldia

Finalistak

Hau da aurten sarituak izango diran finalisten zerrendia:

Kategorixa berezixa. 25.000m.
Markel Albusua
Eneko Beretxinaga

1.Maila 20 mendi eta 1.000metrotik
gora 5

Haritz Albusua

2. Maila. 15 mendi eta 1.000metrotik
gora 3

Unai Soraluze
Gaizka Soraluze
Nerea Alvarez
Ander Ariznabarreta
Gorka Tardio
Xabier Tardio
Mikel Alvarez

Gazte maila


Goretti Oya
Josu Benito
Iker Benito
Marta Ayora
Ekaitz Gordejuela
Maria Etxabe
Gorka Etxabe

Xuban Catalan
Egoitz Unamuno

Lonbide
taberna

Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Mendizabal

Okindegia

Kalebarren,10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

60 Talde baino gehixagori egingo jakue Bai Euskarari prozesuan parte hartzeko gonbitia

Prozesuaren zuzendaritza lana dagokixen Jarraipen Batzordeko kidiak aurkeztu zeben maiatzian, Soroluzeko Bai Euskarari plan estrategikua jendaurrian. Udaletxeko saio aretuan egindako saian, Ezoziko Ama Abesbatzako, Euskadiko Kutxako, Soroluzeko Udaleko, Pil Pilean Kultura Elkarteko, Euskal Herrian Euskarazeko, AEK-ko eta Kontseiluko ordezkariak osatzen daberen Jarraipen Batzordiak, prozesuaren helburuak zein diran eta helburu honek lortzeko ze pauso jarraituko diran azaldu zeben. Laburbilduta, herrixan; kultura, finantza eta aseguru, giza laguntza zerbitzu, prentsa, irakaskuntza, aisialdi, kirol eta mundu asoziatibo eta gizarte mugimenduen alorraren barruan daren elkarteri, euskararen aldeko konpromisua hartu eta gauzatzeko gonbitia egingo jakue. Danera alor honetan batzen diran herriko 60 talde baino gehixagori egingo jakue konpromiso hau hartzeko gonbitia eta



Bai Euskarari Akordiuaren aurkezpen saia Udaleko saio aretoan.

baiezkoa emoten daberen taldiekin lan egingo da, euskararen normalizazioaren aldeko zer nolako konpromisuak hartu ditzakien eta honek gero zela gauzatu leikezen aztertzeko. Aurkeztutako planak 8 bat hilabetetako iraupena izango dau eta datorren ekainaren 26xan egingo dan sinaketa

ekitaldi publikuan jakingo da zein taldek emon dotsen baiezkoa prozesuan parte hartziari. Bixen bittartian Loiola Madera eta Aitor Madrid teknikarixak taldiekin harremanetan ibiliko dira, Euskarari Bai ezan deixuen konbentzitzeko ahaleginetan.

Jai batzordia sortu da Santiago Santa Ana Jaixak antolatzeko

Udaleko Kultura Sailak egindako gonbitiari erantzunez, norbanako zein talde kulturaletako kidiak hurbildu dira aurtengo Santiago Santa Ana jaixak antolatzeko, maiatzian sortu dan Jai Batzordera. Batzorde honen helburua, herri-tarrei jaixetako programaziñuaren osaketan partehartzeko aukeria zabaldu eta horrela jaixak jentiaeren ahalik



Jai Batzordiak maiatzian egindako bileria.

eta gustokuenak izatia da. Soroluzetar danak dare gonbidatuta, nahi izanez gero, ekainaren 5ian arratsaldeko 19:00etan Udaletxeko

zinegotzi gelan egingo dan Jai Batzordia 2. Bileran parte hartzera. Gustoko jaixak nahi badittuzu, azaldu.

Udalak Kultur Gida sortu dau



Udalak zein bestelako taldiak herrixan antolatzen dittuen ekimenak ezagutarazteko, Udaleko Kultura Sailak, Kultur Gida izeneko ekimena jarri dau martxan. Ekimen honen bittartez, Udalak, Udalaren eta herriko gainerako elkarterien kultur eskeintzak "koordinatu" nahi dittu, bide batez, honen arteko "bikoiztasun eta interferentziak" sahiestuz. Gida hau maiztasun erregular batez buzoneatuko da eta elkarteek 15 egun lehenago helarazi beharko diote Udalari ezagutarazi nahi duten ekitaldiaren berri.



Ventanas
Olarri

- * Aroztegia, PVCa, Aluminioa
- * Terraza estaldurak, Balkoiak
- * Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10
20590 Soroluze 73 Posta Kutxatila





PASCUAL CHURRUCA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SOROLUZE

Ekainaren 16 eta 17xan Ezoziko Jaixetara

Aurten be ekainian ospatuko dira Ezoziko auzoko 2.001. urteko jaixak. Jaixak zapatuan hasiko dira arratsalde partian eta gabeko herri afarixaren ostian, Arima Beltza Rock eta

Bluesa erritmoko euskal talde gaztea eta Bigira erromeri taldea izango dira kontzertuan. Domekan berriz, herri kirolekin hasi eta mendi taldiak antolatutako finalista

egunarekin bat eginda bazkari eder bat egingo da Ezoziko jatetxean. Arratsaldian berriz malabar, trikitixa eta umiendako jolasekin emongo jakue amaieria jaixeri.

Ezoziko jaixak 2.001

Ekainaren 16, zapatua

18:00etan

IV. MUS ETA TRUK
txapelketa.

21:30etan

AFARI HERRIKOIA

23:00etan

ARIMA BELTZA

24:30etan

BIGIRA taldearekin dantzaldia. Ondoren txokolatada.

Ekainaren 17, domekia

12:30etan

HERRI KIROLAK
Bi nesken arteko aizkora lehia.

Ondoren, mendizaleei ongi etorria egiten dotsegun bittartian saldía eta txorixua banatuko da. S.K.B.-ko mendi taldiak finalistei opariak emongo dotsez, Mendotz eta Bixkai trikitilarixak alaituta. Bertso eskolako ikasliak saio polit bat eskeiniko doskue.

14:30etan

Ezoziko jatetxean
BAZKARIXA

Bazkaltzia nahi dabenak, aurrez, S.K.B.-ko lokalian edo jatetxean bertan apuntau biharko dau.

18:00etan

XAXI

malabarista taldea.

18:30etan

Trikitilarixekin bat eginda, umien jolasak eta jaixen amaieria.

Antolatzailea:

Ezoziko auzoko jai batzordia

Jose Ignacio Treku Irabazle Kaleko IX. Margo Lehiaketan

Danera 17 martxotik emon zeben izena juan zan domekan antolatutako IX. Margo Lehiaketan. Goizeko 9:00-etan hasi eta arratsaldeko 14:00xak arteko epia izan zeben Soraluze gaitzat hartuta. Nagusixen mailan Jose Ignacio Treku debakoa gertatu zan irabazle eta Bicente Iriondo eibartarra bigarren eta gazte-




Partehartzaileetako baten lana

txuen mailan Ainhoa San Juan debakoa le-

henengo eta Kati Agustino soraluzetarra bigarren. Herritarrei dago-kixonez, Piedad Gonzalez geratu zen lehenengo, nagusixen mailan eta 12.000 pezetako accesita Imanol Kerejeta azpeitikoari eman zitzaion. Goguan izan lehiaketara aurkeztutako lanak Kiroldegixan izango dirala ikusgai maiztaren 28tik ekainaren 9ra arte.

Eta literaturaz?

Hil honetan zozketan?



Iparragirre

Egilea:

Julen Gabiria

Sarrera:

Gontzal Mendibil

Bilduma:

Biografiak 15

Orriak:

125

Egileaz bi hitz

Julen Gabiria Galdakaon jaio zen 1.973an. Enpresa Zientzietan titulatu da eta soziologia ikasten dabil orain. Iaz kaleratu zuen bere lehenengo elaberria; Connemara gure bihotzetan, idazle gazteetako Igartza bekaren irabazlea eta arrakasta handia irabazi duena.

Iparragirre nor zen jakiteko...

Jose Mari Iparragirre (Urretxu, 1.820-Ezkio-Itsaso 1.881) garai guztietako euskal poetarik kantatuena dugu. Kantu asko dira, euskaldun guztion bihotzean arrastoa utzi dutenak.

Eta galdera da?

Iparragirreren kantuetako bat ba al dakizu? Kantatu zati bat bere doinu eta guzti?

Baldin badakizu deitu **943 75 13 04** telefonora.

Ez baldin badakizu, galdetu, ez da oso urrinekoa.


Animo!

IPARRAGIRRE elaberriaren bi ale dauzkazu zure zai!

Aurreko aleko irabazleak:

Maialen Elizburu eta Ander Heriz

**PIL PILEAN ETA ELKARLANEAN N BAT EGINDA,
EUSKAL LITERATURAREN ALDE**



Pub
Intxixu



Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Soraluzeko Musika Bandia berriz pizteko asmua dauke Udalak eta Musika Eskoliak

Udalak eta Musika Eskolak elkar hartuta, Soraluzen Musika Bandiaren berpiztia bultzatzeko asmo sendua hartu dabe. Musika Banda barrixa, Musika Eskolako ikasle eta ikasle izan dakuak eta 1964ko bandan parte hartzen zezen kide batzuek osatuko leukie. Hasiera baten txaranga moduan hasiko litzake urtebete inguruan, herrixan antolatzen diran jai eta ekitaldietan juaz eta aurre-rago, musika banda moduan indartuko litzake. Azken urtietan be izan dira Musika Eskolatik txaranga bat martxan jartzeko ahaleginak baina oso denbora gutxi iraun dabe zoritxarrez. Ramiro Larrañagak bere "Placencia de las



1964ko Musika Bandia "Armas" liburuan diñuan, 1.838 urtekua da Soraluzen musika bandia zeguala zihurtatzen daben berririk zaharrena, Gerra Zibilaren garaikua. Garai haretan, musikari Soraluzetarrak oso maila onekuak izango ziran, Carlos V.enaren gortian jotzeko ere kontratatu zittuztela diño eta. XX. mendiaeren hasieran, herriko talde politikuak,

bakoitzak bere bandia sortu ei zezen; errepublikanuak "Paz y Labor" izeneko bandia eta Karlistak San Ignazio izenez ezagutzen zana eta 1.963an jotziari laga zotsana. 1.964an izan zan beste banda bat baina denboriakin desagertu egin zan hau be. Ia ba sotzen dan musika bandia eta arrakastaz denbora askuan herrixa musikaz alaitzen daben.

Musika Eskolakuak Lezoko musikaldixan eta kurtso amaierako kontzertua Soraluzen

Hilabete mugitua izan da maiatzekua Musika Eskolienendako. Maiatzaren 19xan Lezon ospatu zan "Musikaldia 2.001" jaialdian parte hartu zeban Soraluzeko Musika Eskoliak. Guztira Soraluzeko 41 neska mutikok parte hartu zezen; piano, biolin, gitarra, flauta, gitarra,

akordeoi, trikitixa, abesbatza eta orkestra txikiko taldeetan banaturik.

Maiatzaren 30ian berri, Soraluzen eskeini zezen kurtso amaierako kontzertua. Arratsaldeko zazpiterdietan elizan egin zezen kortzertua eta bi zati izan zittuan;

1.a PASO NIBELE-


KUAK: 6. Modulua egin eta gero eta azterketa gaindittuta III Nibelera pasatzeko egitten dan pruebia da.

2.a TXIKIXAK: Kurtso honetan instrumentuarekin hasi diranak eta oindio kontzertuetan urten ez dabenak.

Egoitz unamuno

XVI. Ipuin Lehiaketa martxan

Soraluzeko XVI. Ipuin Lehiaketa



Soraluzeko Ipuin Lehiaketara aurkezteko asmoz dabizenak ekainaren 8rarte izango dabe zabalik euren lanak udaletzeko euskera zerbitzuan aurkezteko epia. Partaitzailiak Soraluzetarrak izan bihar dabe eta lanak euskeraz idatzitakuak. Ipuinen gaixa libria da eta 17 urtetik gorakuak 6 orrialdetik 12 orrialdera bitarteko luzeerako lanak aurkeztu biharko dittuzte. Animo eta parte hartu. Informaziño gehixao Udaleko Euskara Zerbitzuan (943 75 30 43 Mikel).

Musika eskolan matrikulatzeko epia zabalik

Musika ikastia nahi badozu eta Soraluzen sortuko dan bandako kide izatera iritsi, oraintxe daukazu aukera bikaina bide horri ekiteko. Musika Eskolan matrikulatzeko aukera daukazu maiatzaren 21etik ekainaren 7rarte zabalik dagoen matrikulazio epian. Animatu eta ikasi eskeintzen diran 11 instrumentuetako bat joten. Gainera, Musika Hizkuntza, koroa eta talde instrumentala be badare. Adin danetarako zabalik, Soraluzetar daneri egitten jakue deiza musika eskolan izena emoteko. Animo, musikaren munduan sartzeko sekula ez da berandu! Ikasi eta gozatu musika

Vidal frutadenda

Zure frutadenda

Etxaburueta 2
Tfnoa 943 75 20 55
20590 Soraluze

Txurritxu

gozotegia

Santana kalea, 22 A
Tfnoa 943 75 24 43

Udal batzordeen berri

Apiriliaren 9an egindako ez ohiko saioa

Udal honetako batzar-kideen ordainsariak **2001.urterako**, Udal Batzarrak gehiengoz erabakitzen du, EAJ-PNV(lau),PSE-EE (bat), PP (bat) eta EAko (bat) Batzarkideei dagozkien aldeko zazpi botoz eta EH ko

dagozkien hiru abstentzioz, Udal honetako Batzorkideentzat hurrengo ordainsariak onartzea 2001. Urterako, urtarilaren 1eko atzera-eraginez, jarraian zehazten diren kontzeptuagatik:

Batzarkide bakoitzak hilean.....	45.170 pta
Batzorde informatzaileetako lehendakariak deituriko batzorde bakoitzeko, gehienez 3000 pza jaso ditzaketelarik hilean kontzeptu honengatik.....	1.500 pta
Batzarkide bakoitzak etorritako Udalbatzarraren bikurako.....	5.000 pta

Gobernu Batzordeak, hurrengo erabakiak hartu zituen aho batez:

-Baltegieta kaleko 1.zenbakian "**U**" izenarekin ezagutzen den **ingurua** txukuntzeko 5.750.000 pezetako zenbatekoz aurrekontua onartzea.

-Euskera Batzorde Informatzailearen proposamenez erabaki hauek hartu ziren:

1.Oihana Garitano, Aiora Elizburu, Enara Gallastegi eta Ainhoa Artolazabal-i 6.000 pezeta ordaintzea, **PLAN,PLIN,PLAN** egitasmoan begirale aritzeagatik.

2.Pil Pilean Kultura eta Euskara Elkarteari 450.000 pezeta ordaintzea, 2001 eko dirulaguntzaren %60 a

3.Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolari 90.000 pezeta ordaintzea, 2001 eko dirulaguntzaren %60 a.

4.Soraluzeko AEKri 150.000 pezeta ordaintzea, 2001 eko dirulaguntzaren %60 a.

-Udal honen jabetzeko "**Cuenta de la Alcaldia (1584-1687)**" liburuak berriztatzeke, 480.000 pezetako aurrekontua onartzea.

Maiatzaren 14an egindako ohiko saioa

1.Alejandro Kalonje Kanean baranda jartzeko "**Talleres Otaudy. SL**" ren aurrekontua onartzea, 365.624 pezetako gehi BEZa

2.Zubi nagusiko herriko argiak aldatzeko "**Electricidad Lau**"CBk aurkeztutako aurrekontua onartzea, 441.662 pezetako gehi BEZa

3.San Andres baserri-auzoko errepidean seinaleak jartzeko, DEBEGESaren 154.500 pezetako aurrekontua onartzea

4.Kultura eta Gazteria Batzorde informatzailearen proposamenez honako dirulaguntza ematea:

-**Irukurutzeta Eguna**.....25.000 pezeta

-**Ezoziko Jai Batzordeari**.....468.000 pezeta

-**San Andreseko Jai Batzordeari**.....468.000 pezeta

-**Ezoziko Ama Abesbatzari**.....280.800 pezeta

-**Kaleko Margo Lehiaketari**.....335.000 pezeta

5.Euskera Batzordearen proposamenez honako eskaerak onartzea

-Kantu Afaria antolatzeke mahiak uztea eta eliz atarira jaistea.Argi indarra Udaletxetik hartzeke baimena ematea


-**Soraluzeko AEKri** 25.000 pta ordaintzea txango kulturala antolatzeke.

Edu Pombar



Maidier Lopez
Podologoa
65. kolejiatu zenbakia
Arragueta kalea,
2 bis C behea
20600 EIBAR
Tlfnoa: 943 82 04 88

Bolia taberna



Soraluze

Etxaburueta kalia Telefonoa:
943 74 11 04

Soraluzeko txorixak



Zozuaren Fitxa

Izen zientifikoa
TURDUS MERULA
Euskarazko beste deiturak
Xoxoa
Luzeera
24 - 25 zm
Zabalera
36 zm
Pisua
90 - 110 gr

Zozua

Euskal txorien faunan txantxangorrixarekin batera toki garrantzitsua betetzen dau zozuak. Lerdena, moko fin eta indartsuak eta hanka fin luziak dittuan txori honek, bizi ohituretan bere ahaide txikixa dan txantxangorrixarekin antz haundixa dauka. Kantari bikaina dogu eta beti han hemenka ikusiko dogu buztana mugittuz. Baso eta mendixetan aurkittuko dogu baina baita herritik oso gertu be. Moko eta begi inguru horixak izan ezik, gorputz osoa beltza da. Goizean goiz esnatu eta zuhaitz puntan zozua kantari ikusten baldin badozu eguraldi ona ziurtatuta daukazu.

Aitor Madrid

Iturria eta gehiago jakiteko:
"Eibarko Hegaztiak" Asier Aranberri

Sukaldaritza



Hileko Sukaldaria

Oraigo honetan, tabena batera juan biarrianelkarto batera juan gara, Alkazar elkartera eta bertan gixau gozo gozo bat zela prestatzen dan erakutsi dozkue.

"Gixaua"



Osagaiak:

4 - 5 pertsonentzat

Okela 800-1000g
2 kipula, hobe gorrixak
Berakatzu buru erdi
Kalabazin txiki bat
2 tomate ensaladakuak
8 azenaria
Pipar gorri pote txiki bat
Ilarrak 1/2kg
Patatia 1/2kg (zati handi ta txikitan, saltzia loditzeko)
Olixo iluna 1/4l
Ardo beltza 1/2l
Coñac kopa bat
Gindilla (bakoitzan gustuan arabera)
Txanpiñoiak

Zela egin:

Su altuan dana nahastu, ardo gabe, piska bat pasau okelia egin arte, eta gero coñac-a eta ardua bota. Gutxi gora-behera erdi sutan kazuela normalian ordu batez edo eduki eta begiratu okelia zela daguan. Sikua badago, ur pixkat bota. Patatia hobe da 15 minutu eta gero botatzia, hola ez da desegino.

Ugaitz catalan eta Eguzkine Aldazabal

Erretratua



1941eko Musika Bandia

1941eko, "San Ignacio-Ciculo Carlista" Musika Bandako partaidiak Plaza Barrixan.Garai haretan jente nagusi eta gaztiak, 25 lagun baino gehiagoko banda edarra osatzen zeber Soraluzen. Kanpotik etorritako jentia eta herrikuak parte

hartzen zeber bandan eta herritik kanpora be urtetzen zeber jotera. Ia bandako kidiak ezagutzen ditzuzuen (deittu eta esan zein dira) eta ia berriz be halako musika banda edar bat sortzen dan herrixan !

Kintanilla soinuoliak lagatako argazkixa.

Kontu zaharrak (Herriaren sortze data...)

Euskara Soraluzen

Beti entzun da Soraluzetarrak Gipuzkoarrak baino Bizkaitarrak dirudigula hitzegiteko orduan, honen arrazoa industri aro ingurukoa da. Garai hartan Bizkaiko jauntxoarekin tratu handia zeukan Soraluzek eta hontaz aparte Durangoko Artzapezpikutegiarekin lotura haundia edukitzearen ondorioz datorkigu Soraluzetarrori Bizkaieraren kutsu hori. XIX. mendearen lehen 30 urteetarte gutxi gora behera, kasik euskara hutsez egiten zen Soraluzen,baina urteetan aurrera egin ahala, asko aldatu da egoera. Industrializazioak eragin asko eduki zuen euskararen galera honekin. 1970. urtean 2100 pertsona ziren euskaraz egiten zutenak, hau Soraluzeko biztanleen % 30 zen.

Hau dena ikusita 1966.urtean Soraluzeko Ametsa ikastola sortu zen.1000 pezetako aportazioak egin ziren Erregetxean kokaturik zegoen ikastolaren funtzio-



namenduarentzako, Haseran 40 ume besterik egon baziren ere urteak aurrera egin ahala jende gehiagok izan zuen ikastolan ikasteko aukera.

Urte hauetan izen ezberdinak izan ditu ikastolak, lehenengoa Soraluzeko Ametsa izan bazen, jarraian Nuestra Señora de la Asuncion izenpean ibili zen urte askotan,

urte hauetan eleizaren agindupean egotearen ondorioz eraman zuen izen hau. Urte batzuk geroago Nuestra Señora de la Asuncion izena berriz ere Soraluzeko Ametsagaitik aldatu zitzaion. 1996. urtean Soraluzeko herri ikastetxea eta ikastola fusionatu egin ziren eta bertan bi urte gehiagorako ikasketak ematen hasi ziren. Goiko eskoletan umeak geratu ziren eta behekoan heldutxoagoak ,ondorenko izenekin: Goiko eskolan, Plaentxi H.I. izenpean funtzionatzen du momentuan eta beheko eskolan aldiz, Soraluze B.H.I. izenpean dabilta.

Argi dago euskararen egoera ez dela denok nahi gukeen tamainakoa baina tamalez halakoa dugu, hau aldatzeko lan taldeak ere badira herrian, urte gutxiren buruan euskararen normalkuntza lortzeko ahaleginean dihardutenak. Animo !!

Gorka Salaberria

Datuak: Soraluze - Placencia de las Armas Monografia Histórica

Ibilixan ibilixan bertso eskolia

Maiatza, aberatsa eta ekaina, izango da aurrekua aina



Ibilixan Ibilixan bertso eskolakuak Elgoibarko kanporaketan.

Hilabete bizixa izan da maiatza bertso eskoliarendako; txapelketia, bertso saiua. Garrantzitsua da eskoletako errutina horretatik etara eta plazan agertzeko aukeria izatia. Herrixan badare horretarako aukeria emoten daben gune eta momentu asko eta horrek aprobetxatuta bertso-larigaixak bertsolari egiteko bidian jarri leizke.

Pasatu berri diran Sagardo Eguna eta Kantu Afarixa moduko ekitaldixetan, herriko eta auzuetako jaixetan eta beste mila ekimenetan, bertsuari tokixa egiteko aukeria izaten da. Pozgarrixena da, Plaentxian bertsoarako gune asko egotiaz gainera, herriko bertsolariak indar berezi bat daukela jentiagan. Kanpoko bertsolariarekin nahikua lan

DOINUA: Habanera
Maisuak bultza eginda
nator ni txapelketara
bertso onik ez espero
nor bait itxaroten bada.
Habanera aukeratu
eta zergaitixa hara,
gerokua konpontzeko
agur gogorra bihar da.

Hortik aurrera, lau oinak emonda, ofizioka, puntua jarritta eta gaixa emonda bota bihar. Bere denbora

izaten da sarri, jentia ixilik mantentzen baina herriko bertsolariarekin, jentia, esaten dabena entzun eta askoz gehixago gozaten dau. Jon Sarasuak diño bere artikuluetako baten, bertsolarietan futbolian moduan jokatzeko mailak darella eta ez daukela danak liga nazionaleko profesional izan biharrik, jentiarik gozatuazteko. Beraz, herri mailako futbola dauan moduan, herri mailako bertsozintzak be badauka bere tokixa eta indarra.

Eneko Beretxinagak lan bikaina eskolarteko txapelketan

Aurpegixa irina baino zurixago zebala, igo zeban Enekok tabladu gainera. Bapateko lehenengo saiua onduan zazpi bertsolari zittuala. Jon Maia gajjartzaile. Agurra bota bihar lehenengo:

Finalera pasatzeko
sortu bihar dot ikara,
atzeko kaskajo honek
egiten badoste traba,
koxkobilotatik tira
ta buruan makilkada,
neri kaso egin eta
ondo konponduko gara.

hartuta, akatsik barik bete zittuan lan danak. Harrigarrixa. Bertsolarixa dator, bertsolarixa ! Aupa Eneko !

Egoitz unamuno

Ygarten Ygartendotela



ARIES martxoaren 21etik apirilaren 21era
Ez baldin badakizu zer egin, eta asper eginda bazare, bilatu zerbait egiteko, bestela jarraitu ezer egin barik.
Pil-eguna: 20



TAURUS apirilaren 22tik maiatzaren 21era
Beti asteburua noiz etorriko zain, azkenian heltzen da eta betikua egitten dozu jan eta lo, lo eta jan.
Pil-eguna: 19



GEMINIS maiatzaren 22tik ekainaren 21era
Orain arte izan dozuna galdu dozula eta, pentsatzen dozu egin ez dozunagaitik galdu dozula. Ez da izan alderantziz?
Pil-eguna: 13




CANCER ekainaren 22tik uztailaren 22ra
Danak zur eta lur laga zenduzen beste horretan eta zela egin zenduan jakin ezinda zabiz. Ez da izango musa bat daukazula nonbaiten?
Pil-eguna: 5




LEO uztailaren 23tik abuztuaren 22ra
Zure kuttun horrek daroian martxa ez dozu bape begikua. Jeloskor zare, baina ba daukazu arrazoirik?
Pil-eguna: 28



VIRGO abuztuaren 23tik irailaren 22ra
Bizitza bakoitzak bere patua daukala pentsatzen dozu. Konturatu zara zenbat patu daukan ibaixak?
Pil-eguna: 12



LIBRA irailaren 23tik urriaren 22ra
Antolatzen diran bazkari eta afari guztietara apuntatzen jarraitzen badozu, tripak eta patrikak nabaritutako dabe. Egin dieta integral bat.
Pil-eguna: 11




ESKORPIO urriaren 23tik azaroaren 22ra
Azterketak gora, azterketak behera, hobe kenduko balittuzte ezta? Hala ta guztiz ere berdin ikasi biharko dozu.
Pil-eguna: 9



SAGITARIUS azaroaren 23tik abenduaren 21era
Erosketak egittera juaten danian erostera juan bihar da eta ez zeu bezala edozer gauza egittera erostia baino. Beraz erosiñññ.
Pil-eguna: 29



CAPRICORNIUS abenduaren 22tik urtar. 20ra
Zein politta gelditu jatzun ilia kolore horrekin. Kolore bizixak bizittasuna dauken pertsonendako dira ordia...
Pil-eguna: 5



AQUARIUS urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra
Trikimailuekin dana lor daitekeela uste dozun horietakua zara. Zabaldu begixak eta beste bide batzuk aukeratu, jai daukazu bestela.
Pil-eguna: 17



PISCIS otsailaren 21etik martxoaren 20ra
Lagunak mendira juateko proposamena egitten dotsuen bakoitzian, zuk eguraldi txarraren aitzikia jartzen dozu. Hobe dozu beste aitziki bat topatu, eguraldi ona dator eta.
Pil-eguna: 12

Ekaineko agenda

**Maiatzaren 28tik
Ekainaren 9ra**

MARGO LEHIAKETARA
AURKEZTUTAKO LANAK IKUSGAI

Nun: KIROLDEGIXAN

Ordutegixa: ASTELEHENETIK OSTIRALERA,
19:00ETATIK 21:00ETARA ETA ZAPATUETAN,
12:00XETATIK 14:00ETARA.

Antolatzailea:
UDALEKO KULTURA BATZORDIA.

**Ekainaren
11tik 16ra**

JAIKETAKO KARTELA EGITTEKO
AURKEZTUTAKO BOZETUAK IKUSGAI

Nun: KIROLDEGIXAN

Ordutegixa: ASTELEHENETIK
OSTIRALERA, 19:00ETATIK
21:00ETARA ETA ZAPATUETAN,
12:00XETATIK 14:00ETARA.

Antolatzailea:
UDALEKO KULTURA BATZORDIA

*Lehiaketara Bozetuak aurkezteko epia
ekainaren 8xan amaïttuko da.*

**Ekainaren 7xan
eguen**

IPUIN KONTAKETA

"Haur eta gurasoendako saioa"
ZubizarItziar Zubizarreta

Nun: *Liburutegixan*

**Ekainaren 19tik
Uztailaren 6ra**

KONTRARGI TALDIAREN
ARGAZKIXAK IKUSGAI

Nun: KIROLDEGIXAN

Ordutegixa: ASTELEHENETIK
OSTIRALERA, 19:00ETATIK 20:30ETARA
ETA ZAPATUETAN, 12:00XETATIK
13:30ETARA.

Antolatzailea:
KONTRARGI ARGAZKI KOLEKTIBOA

**Ekainaren 10ian
domeka**

MOTORREN KONZENTRAZIÑUA

IRTEERIA GOIZEKO 9:00ETAN
BOLIA TABERNATIK

Antolatzailea:
Plaentxi Moto Club

**Ekainaren
15, 22 eta 29xan**

ZINIA KALIAN

EKAINAREN 15, 22 ETA 29XAN,
BARIKU ILUNTZETAN

Nun: PLAZA ZAHARRIAN

Antolatzailea:
UDALEKO KULTURA BATZORDIA

**Ekainaren 23an
zapatua**

SAN JUAN BEZPERAKO SUA

Nun: ESTAZIOKO SUA

22:00etan
SUA PIZTU

22:15etan
KINTANILLA
SOINUJOLEAREKIN ERRROMERIA
Honekin batera txokolatia banatuko
jakue bertarutzen diran daneri.

Antolatzailea:
ESTAZIÑOKO BODEGIA ETA
AUZOTARRAK

Nun: PLAZA BARRIKO SUA

22:00etan
AFARI MERIENDIA PLAZAN

23:00etan
SORGINAK SUA PIZTU

23:15etan
SORGIN DANTZA SUAREN
INGURUAN

23:30etan
EDARI MAGIKUAREN
BANATZIA ETA IPUIN
KONTALARIXA
Hortik aurrera trikitixa eta kantuak
suaren inguruan, gauerdia pasa arte.

Antolatzailea:
PIL PILEAN KULTURA ELKARTEA

Lehiaketia



**Zein da argazkixan agertzen
dan baserrixa?**

**Bi lagunendako afari mundial bat
irabazi zeinke**

DEITU BIZKOR BIZKOR

943 75 13 04

aurreko aleko irabazlia: Ander Epelde
Erantzuna: Salon Basarrixa

ZORIONAK!!!



Irune Varela Galarraga
2.001 - 5 - 20
Zorionak bihotz-bihotzez
Patxo haundi haundi bi etxekuen partetik.
Ondo-ondo segi, pottola!!!



Ibai Kortabarría
2.001 - 5 - 31
Zorionak eta musu haundi bat
Beti bezain txintxua eta formala izaten jarraitu !. Herriko dantzarik onenari.
Gurasoen eta anai-arreben partez.



Ander Ariznabarreta Burunza
7 urte 2.001 - 6 - 17
Zorionak mutitxo !!!
Ondo pasau eta txintxua izan zure urtebetetzian.
Andonin partez.



Cristina de Leon
2.001 - 5 - 9
Zorionak eta urte askotarako!!!
Atzerapenez bada be zorionak opa dotsuguz eta betiko umoria manten deizun eskatu.
Etxekuen partez.



Anartz Cifuentes
2.001 - 6 - 7
Zorionak, potxolo!!!
Jarraitu ala-alaia eta jatorra izaten.
Santa Anako familiaren partez...



Ana Maria Gil
39urte 2001-06-02
Zorionak eta urte askotarako !!
Urriak badoiaz aurrera, eh?? Hala da be, zuk beti bezain alai jarraitzen dozu.
Patxo haundi bat familixakuen partez.



Iosu Gil
5urte 2.001 - 6 - 5
Zorionak mutikote !!!
Urriak ez dira alperrik pasatzen ta. Zelako haundi zabizen egitten...
Besarkada bat familixakuen partez.



Ane Iarreategi Azurmendi
18 urte 2.001 - 6 - 2
Zorionak eta urte askotarako!!!
Zorionak ricitos de oro!! Ja 18 urte eh?
Aprobetxatu ganoraz, baiña pasatzeko!
Kuadrillakuen partez.




Mikel Juaristi Ariznabarreta
9 urte 2.001 - 5 - 26
Zorionak eta urte askotarako!!!
Beti bezain umoretsu jarraitu txikito, baina hori bai etxekuekin formala izaten!
Txurrukeneko senidien partez.




Nerea San Jose Domingez
3 urte 2.001 - 6 - 25
Zorionak eta urte askotarako !!!
Aupa potxola eta ez galdu sekula danon aurpegiak argitzen dituen izaera alai jator hori.
Mirenen partez.




Ainhoa Arruabarrena
15 urte 2.001 - 5 - 18
Zorionak eta urte askotarako!!!
Gu konturatu orduko ume izatiari laga dotsazula! Zorionak eta urte asko bete.
Etxekuen partez.




Oskar Jorge "Txipi"
35urte 2001-05-06
Zorionak eta urte askotarako!!!
Zure modukuak gutxi munduan. Eta eskerrak, bestela...
Kuadrillakuen partez.



Gonzalo Ariznabarreta "Iribe"
42 urte
Zorionak txikitoo!!!
Ondo ondo pasau zure egun berizi berezi horretan. Etxekua.



Iñaki Gabilondo Lete
40 urte 2.001 - 4 - 16
Zorionak !!
Aupa motel, urriak pasatu eta pasatu, konturatu barik doiaz ezta?
Arrebiaren partez...



Mª Angeles Ariznabarreta Mugerza
2.001 - 6 - 6
Zorionak !!!
Segi ezazu umore xeblebre horrekin bazter guztiak alaitzen!!
Txurrukeneko senidien partez.



Maria Jesus Arrizabalaga
x urte 2001-04-17
Zorionak ama!!!
Berandu baina akordau gara. Patxo handi handi bat asko maitte zaituen zure seme alaba eta senarran partez.



Maria Aizkona
19 urte 2.001 - 6 - 2
Zorionak sagarjale!!!
"Maria de la O ! Eso es todo amiga !"
Aurrekuan Oierrekin juan zinan despistada !!
Pil Pileanekuen eta zure mutilaren partez.

ezkondutakuak



telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udalzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroledegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkarte	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutoa	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apai Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

*Jose Cortes
eta
Irantzu Sanz*

hildakuak

*Luis Ecenarro Ucin
Juana Oregi Alberdi
Antonia Castilla
Concepcion Pueyo
Alberto Goenaga
Veronica Galrraga*

jaixotakuak

*Maddalen Laskurain
Jauntsarats Goenaga
Jone Rodriguez
Ignacio Arana*

Oharra

Jubilatu eta 18 urtetik beherako pertsonak bazkide izatia nahi badabe 1.500 pezeta ordaindu biharko dituzte bakarrik.
Animatu eta egin zaitte bazkide !

iletargixan gorabeherak

Ilberri



Ekainaren



Ekainaren

Ilbete

Ilgora



Ekainaren



Ekainaren

Ilbehera



autobusak

PESAko autobusen
ordutegixa jakitzeko
902 10 12 10
telefonora deitu

Pil Pilean Aldizkariko Harpidetza

Egin biharrekua:
Deitu 943 75 13 04 telefonora eta emon bialtzia nahi dozun horren izen eta helbidia. Gero, sartu 1.000 pezeta (urteko kuota) Euskadiko Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan Pil Pileanen izenian daren kontuetako baten.



**Zuen hildakoen
eskela,
eskerrona edo
urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Pil Pileanen.**

mezen ordutegixa

Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),
11:00tan (umeentzat euskeraz) eta
12:30tan (elebiduna)

SAN ANDRESKO 1GO BINAKAKO PELOTA TXAPELKETIA

Partehartzailiak:

16 URTEK GORAKO AFIZIONATUAK

Bikotiak:

BIKOTIAK ZOZKETA BETARTEZ AUKERATUKO DIRA

Izen emotia:

GAZTELUPE, GILAN

Ikasle eta langabetuak:

500PTA

Besteak:

1000PTA

Izen-emateko azken eguna:

EKAINAREN 6XA

Zozketa eguna:

EKAINAN 7XA, GABEKO 9ETAN GAZTETXIAN

SARIAK:

1go bikotearendako: Txapela eta kopia


2. bikotearendako: Kopa bestiendako be zerbait egongo da



NACO GOÑI & MALCOLM SCARPA
20 URTEKO BLUES IBILBIDEA



Disko guzti hauek Gaztelupe
tabernan dituzu salgai



M-N EZTEN:
TALDE BERRIA / DISKO BEREZIA



PETTI:
MAISUTASUN AKUSTIKOA



NON DEMONDRE:
ROCK INTELIGENTEA
CDROM INTERAKTIBOAREKIN



GAZTELUPEKO HOTSAK DISKO ETXEA / TEL.: 943.75.30.16 FAXA: 943.75.01.39 / GAZTELUPEKO@HOTSAK.COM /

ELGOIBAR B.H. Institutua 2001/2002

Arregitorre, 2
Tel. 943 74 80 19
Faxa. 943 74 82 30
E-posta: bulegoa@elgoibar.hezitek.net
web: www.elgoibar.hezitek.net

ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK (A eta D eredua)

Merkataritza
Ibilgailuen Elektromekanika
Karrozeria
Erizaintza Laguntza Osagarriak

GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK (A eta D eredua)

Administrazioa eta Finantzak
Automozioa
Ingurugiro Osasuna

AURREMATRIKULA EPEA: ekainaren 1etik 11ra arte

600 ikasle inguru bereaien etorkizuna jorratzen · **Azpiegitura teknologiko aurreratuena.** Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz · **ISO 9002 kalitate ziurtagiria.** Prozedura garden eta kontrolatuak · **80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu.** Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena** · **Lanpostua berehala lortzeko aukera** · **Lanbide heziketako sare integrareko partaidea.**

